

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2013ko apirilaren 9a. IX. urtea. 2.573. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



## Eguzki taldeak Oria ibaiko «hondakinak bakarrik» garbitu behar direla dio

Tolosako PSE-EEren udal taldeak Oria ibaia garbitzea eta dragatzea eskatu du uholdeak ekidin asmoz, eta proposamenaren aurka azaldu da Eguzki talde ekologista 02

## Oinatz Bengoetxea ez da fidatzen Olaizola II.a eta Zabala aurkariez

Bengoetxea leitzarrek eta Beroiz bikoteak Eskuz Binakako Pilota Txapelketako finalera igarotzeko azken aukera izango dute 06

## Alkizalete II.ak bakarrik egin du aurrera Eusko Label banakako txapelketan

Urrezko mailatik kanpo geratu dira Pellejero, Agirre eta Saralegi aizkolariak; larunbatean, Asteasun, 23 urtez azpikoak, eta igandean, Leitzan, urrezko mailakoak ariko dira 07

## Danok Danena taldeko bederatzi pultsulari, Espainiakora

Amasa-Villabonako Olaederra kiroldegian jokatutako Euskal Herriko Txapelketan emaitza onak lortu eta gero, halterofilia taldeko zazpi mutil eta bi neska sailkatu dira 07

Jesus Mari Penilla Tolosako Foro Errepublikanoako kidea

## «Monarkiaren abolizioa eta gobernu errepublikarra nahiko genituzke»

Tolosako Foro Errepublikanoa elkarlanean aritzeko gunea dela azaldu du Penillak, eta bertako kideek Aste Kultural Errepublikanoa antolatu dute; 'Gerra eta errepresioa Tolosan' hitzaldia entzun ahalko da, gaur 03



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat 2 sarrera ditu



Apirilak 14 • Igandea  
12:00  
Donostiako Irunben

LAGUN ARO GBC  
Cajasol

saskibaloia partida

hitzak hitza



Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen 943 65 56 95 telefono zenbakira.



# Oria ibaia Tolosan dragatzearen aurka azaldu da Eguzki talde ekologista

«Ibaiko hondakinak bakarrik» garbitu behar direla diote, PSE-EEK proposaturikoaren harira

**Itzea Urkizu** Tolosa

Eguzki talde ekologista, Tolosako Udaleko PSE-EEK aurkezturiko proposamenaren aurka agertu da; Oria ibaia, Tolosako zatian, garbitzea eta dragatzea beharrezkoa dela diote PSE-EEK kideek, baina talde ekologista ez dago ados jarraibide honekin, eta «Ibaiean hondakinak bakarrik» garbitu behar direla uste dute: «ikuspuntu kritikoa azaldu nahi dugu honen inguruan», diote.

Aipatzekoa da, Tolosako Udalean PSE-EEK duen ordezkaririk proposamen bat aurkeztu zuela duela bizpahiru hilabete, Oria ibaiaren garbiketarekin lotuta; besteak beste, uholdeak ekiditeko helburuz «Oria ibaia garbitu eta dragatzea» proposatu dute.

Eguzki talde ekologistak, lehenik eta behin, garbitzea zer den zehaztu nahi izan du: «Garbitzea, zikinduta dagoena kentzea da, eta beraz, kasu honetan, herritarrek sorturiko zikinkeria garbitu beharko litzateke, hondakinak bakarrik garbitu beharko lirateke». Bide honetan, ibaietan gizon-emakumeen ondorioz sortzen den zikinkeria garbitzea erabat babestu nahi du Eguzkik.

Talde ekologistak, ordea, «beste garbiketa mota batera» bideratu ditu kritikak: «Hondakinez gain, sedimentuak eta landaredia ere deuseztatu nahi dituzte, hau da, ibaiak berezkoak dituen elementu naturalak desagertarazi. Garbiketeta mota honen aurrean erabateko desadostasuna azaldu nahi dugu».

Honekin batera «ibaia hobekien garbitzen duena ibaia bera» dela nabarmendu dute: «Ibaia



Euirteen ondorioz, ohikoa izaten da Tolosan ibaiaik gainezka egitea. A. IMAZ

## %95

■ **Gizakiak bideratuta.** Oria ibaiak Tolosan egiten duen bidearen %95a, gizakiak artifizialki bideratutakoa da, eta ondorioz, «ibaia gainezka egitearen arriskua ez da sekula desgertuko», diote Eguzkiko kideek. Honen aurrean, lurralde antolakuntza errotik aldatzea da, uholdeen Europako zuzendaritzaren arabera, konponbiderik eraginkorra. Tolosaldean, ordea, hori ezinezkoa denez, Eguzkiko kideek argi azaldu nahi izan dute uholde arriskuak saihesteko egin behar direla: «Eredu honetan, Anontan, Amasa-Villabonan nahiz Adunan dauden lur zati lauak giza-kiak nahiz azpiegiturak ez okupatzea da bideetako bat, Tolosako uholde arriskua arintze aldera».

hazten den bakoitzean, sedimentuak zabaldu eta sailkatu egiten dira, eta landaredia ere ordenatu egiten da. Hori da ubidea garbitzea». Finean, beraz, giza inbasioa da, Eguzkiren arabera, arazoak sortzen dituena.

Horrela, beraz, PSE-EEK Tolosan proposaturikoa «alferrrikakoa» dela uste dute: «PSE-EEK Tolosan proposatu duen garbiketeta mota alferrrikakoa da, ibaia berriro hazten denean sedimentuak berriro pilatuko baitira. Gainera, bigarren mailako ondorioak dakartzatza ibaia dragatzeak nahiz landaredia deusezteak, ibaiak ez baitira sedimentuen ondorioz hazten».

■ **«Ibaia espaziorik ez kendu»**

«Oria ibaiaren arroan jada berandu den arren, ibaiari espazio gehiagorik ez kentzea lehentasu-

nezkoa da», Eguzki talde ekologistaren arabera.

Izan ere, Oria ibaiak Tolosan duen ubidearen %95a gizakiak artifizialki bideraturikoa da, eta ondorioz, «ibaia gainezka egitearen arriskua ez da sekula desgertuko», diote Eguzkiko kideek. Honen aurrean, lurralde antolakuntza errotik aldatzea da, uholdeen Europako zuzendaritzaren arabera, konponbiderik eraginkorra. Tolosaldean, ordea, hori ezinezkoa denez, Eguzkiko kideek argi azaldu nahi izan dute uholde arriskuak saihesteko egin behar direla: «Eredu honetan, Anontan, Amasa-Villabonan nahiz Adunan dauden lur zati lauak giza-kiak nahiz azpiegiturak ez okupatzea da bideetako bat, Tolosako uholde arriskua arintze aldera».

Honenbestez, ibaiko hondakinak nahiz landare inbaditzaileak garbitzearen alde, eta sedimentuak eta landaredia ez deuseztatzearen aldeko aldarri hauen, Tolosako Udaleri helarazi nahi izan dizkiote: «Alfredo Ollero adituaren eskutik sakondu ahal izan dugun hausnarketa hau, Tolosako Udaleri Oria ibaiaren garbiketaren auziaz aritzeko sortu duen mahaiaren ezbaidatzea espero dugu».

## ↓ Iragarki laburrak

### LAN BILA

**Etxeko lanak.** Etxeko lanak egin, haurrak zaindu edota bestelako lanetarako, esperientziadun eta gidatzeko baimena duen emakumeak bere burua eskaintzen du. 677 88 42 78.

**Autobus gidaria.** Edozein lanetarako, esperientziadun eta autotobu gidatzeko baimena duen gizonak bere burua eskaintzen du. 677 88 42 78.

## Gutuna

### Dantzara eta plazara, beste urte betez

Badira jada zortzi urte, euskal dantzaren bidetik, Tolosan aspaldiko erromerietara itzultzeko jaia antolatzen hasi ginenez geroztik. Urtebete beranduago antolatu genuen, lehenengoz, Tolosako dantzari txiki eguna, eta Euskal Herri osoko ehunka gaztetok astindu dituzte, orduz geroztik, euren oinak Tolosako plazetan.

Hastapen haietako helburu eta gogo bereberekin jarraitzen dugu urteroko festa egun hau antolatzen, eta aurrera begira ere, jomuga berriei begira gaude Udaberri dantza taldeko kideek. Bide honetan, ezinbestekoa

izan da, beste urte betez, Tolosako saltoki, taberna nahiz enpresek gure egitasmorako eman diguten laguntza. Kultur eragile garen aldetik, urte osoko jardunaren fruituetako batez gozatzen dugu, bai dantzari gaztetxoekin, eta baita Zerkau-siko dantzialdian ere. Eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu, beraz, zuei, dantza plazara ateratzeko helburu honetan bidelagun izateagatik.

Era berean, pasa den martxoaren 23an Zerkau ingurura oinaka astintzera bertaratu ziren guztie ere keinu egin nahi genieke. Han sortu zen giroa errepika dadila datorren urtean!

■ **Itsaso Barrenetxea.** Tolosako Udaberri dantza taldearen izenean.

## Museoen Egunaren harira, argazki lehiaketa Topic zentroan

Apirilaren 15etik 28ra bitarte eskatu ahal izango dira izen emate orriak, Topic zentroko leihatilan bertan

**I. Urkizu** Tolosa

Topic zentroak argazki lehiaketa antolatu du, datorren maiatzaren 18an ospatuko den Nazioarteko Museoen Egunaren harira. Parte hartze epea apirilaren 15ean zabalduko dute, eta izen emate orriak apirilaren 28ra bitarte izango dira eskuragarri, Topic-eko leihatilan. Honen harira, argazkiak entregatzeko azken eguna maiatzaren 5a izango da.

Lehiaketan parte hartzeko, Topic gaia erreferentziatuz eman dute antolatzaileek. Modu honetara, «bakarrik, adiskideekin nahiz familiakoekin, parte hartzaileak euren burua museoan bertan erretiratatzera gonbidatu nahi ditugu», azaldu dute. Halaber, museoaren argazki orokorrak nahiz txotxongilo zehatz baten ere balioko dute.

Izena emateko, Topic-eko leihatilako orria bete beharko da, eta argazkiak [cit@citolsa.com](mailto:cit@citolsa.com) helbidera bidali beharko dira, JPEG formatuan, maiatzaren 5a baino lehen.

Lehiakideen artean hiru maila egingo dituzte, eta Tolosako epaimahai profesional batek hartuko du erabakia.

Era berean, argazki guztiak Topic-en ikusgai jarriko dituzte maiatzaren 11tik 26ra, erakusketan batean, eta baita [www.topicitolsa.com](http://www.topicitolsa.com) atarian ere.

## → Laburrak

### Atez ateko sistemari buruzko ezbaida irekia

**AMASA-VILLABONA** Villabonako Udalak, atez ateko hondakinen bilketa sistemaren inguruko ezbaida irekia antolatu du, biharko eta etzira. Martxoan 400 herritarrek izena eman dute, baina jende gehiagok parte hartzea nahi dute. Horrela, Galder Azkue alkateak, herritarrez gain EAJ eta PSE-EEko zinegotziei ere parte hartzeko proposamena egin die. Saioak, bihar eta etzi izango dira, Gurea zinema aretoan, 19:00etan. Lehen egunean euskarazko ezbaida izango da, eta bigarrenean, berriz, gaztelarazkoa.

### Hitzaldia Vatikanoko bigarren kontzilioaz

**TOLOSA** Ion Etxezarreta irakasleak hitzaldia eskainiko du bihar, Vatikanoko bigarren kontzilioaz. *Orain dela 50 urte, Vatikanoko II. Kontzilioa: Eliza-erantzutza udaberri* izenburupean. Santa Maria parrokiako aretoan izango da saioa, 19:30ean.

### Ibilbideen inguruko web atariaren aurkezpena

**TOLOSA** Bihar, Euskal Herrian egin daitezkeen ibilbideen [www.ibilbideak.euskadi.net](http://www.ibilbideak.euskadi.net) web atari eta komunitate berri baten aurkezpena izango da, Antxon Bandres Bidaiarien Txokoan, 20:00etatik aurrera. Egitasmo honen sortzaile eta koordinatzailea den Mikel Brin-gas izango da bertan, eta web-guneak eskainiko dituen aukerak azalduko ditu. Besteak beste, nordere ibilbideak partekatu eta besteak arakatu ahal izango dira.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Jesus Mari Penilla ◉ Tolosako Foro Errepublikanoa kidea

Tolosako Foro Errepublikanoak, udalaren laguntzarekin, Aste Kultural Errepublikanoa antolatu du. Igandera bitarte, hainbat ekimen egingo dituzte Tolosan.

# «Errepublikaren alde gehien egiten duena Espainiako Errege Etxea da»

Asier Imaz Tolosa

Tolosako azokatik erostetak egin ondoren iritsi da **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN** egotzara Jesus Mari Penilla (Tolosa, 1948), txapela buruan duela. Atzo hasi zen Aste Kultural Errepublikanoaz hitz egiteko prest dago. Albistea, ordea, iragan asteko egunkarian atera zen, egitarau eta guzti. Elkarrizketaren helburua, Tolosako Foro Errepublikanoa zer den argitzea da. Jesus Mari Penilla betaurrekoekin dago, eta hauek badute berezitasun bat: egunerokotasuna, errepublikar kolorez erakusten dute. **Noiz hasi zinen errerepublikaren aldeko kontzientzia hartzen?**

1968an, Txabi Etxebarriarena gertatu zenean, 20 urte nituen. Urte haietan, hitz egitea ere ezinezkoa zela ikusten zenuen. Aita, gainera, errepublikarra nuen. Zera esan nahi dut, 16-18 urterekin hasi nintzela kontzientzia hartzen. Batzuk Espainia handia eta askea zioten, baina hura oso gaztaro iluna izan zen.

**Testuingurua nolakoa zen?**

Tolosa oso herri kontserbadorea zen; alde batetik, errepresioa jasan zuten %40a zegoen, baina bestetik, oso eskuindarrak zirenak zeuden. Kontserbadore izatera hori Aranburu Jauregian jarri dugun argazki erakusketan ondo ikusten dela uste dut.

**Aita errepublikarra zenuela esan duzu. Gai horietaz hitz egiten al zizun?**

Bai, nire aitak ez zuen inongo arazorik hitz egiteko. Ebroko gudaz, adibidez, asko hitz egiten zuen, bera han egon zelako; gerra ostearren inguruan ere asko mintzo zen. Langileen batailoian eduki zuten penitentzia egiten edo, eta ondoren soldaduskara bidali zuten. Gaztaroa lapurtu zion frankismoak nire aitari.

**Sustrai horiekin, foroko partaide ez izatea zaila izango zen zuretzat.**

**Nola hasi zineten lanketa horretan?**  
Tolosako Foro Errepublikanoa

■ **Aste Kultural Errepublikanoa egitaraua.** Aste guztiko ekimenak [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info) webgunean.



A. IMAZ

udalak fusilatuen omenez hilerrian oroitarria jarri zuenean hasi zen martxan, lore eskaintzak egiten eta abar. Lehen urte hartan kosta egin zitzaion hastea, baina iaz, apirilaren 14aren harira, indartzea lortu zuen. 22 bazkide lortu genituen eta taldea osatzea erabaki genuen.

**Iaz, apirilaren 14an, Espainiako erregearen eta elefantearen arteko aferra gertatu zen, gainera.**

Errepublikaren alde gehien egiten ari direnak eurak dira. Elefantearen gertaeraren ondoren, jendea hitz egiten hasi zen, eta ordu arte isilik zeuden gauzak ateratzen hasi ziren. Orain, infan-

taren kontua bolo-bolo dabil, eta baita erregearen aitaren Suitzako kontuarena ere. Bizitza guztian txirotasunez bizi izan direla saldu digute, eta orain guztia azalera-tzen ari da.

**Zer eskatzen duzue forotik?**

Ez dugu eskakizunik egiten, noski, monarkiaren abolizioa eta gobernu errerepublikarra nahiko genuke, baina foroa elkarlanean airtzeko gune bat da. Alderdi desberdinetako jendea gaude bertan, eta oraingoz, helburu berarekin gabilta lanean. Aste kulturala antolatzeaz gain, beste hainbat gauza ditugu martxan, adibidez, Tolosako liburategian errepubli-

karen inguruko gune bat egotea eskatu diogu alkateari.

**Talde irekia zarete, beraz.**

Foroak atek zabalik ditu, eta bertan parte hartu nahi duenak, gurekin harremanetan jartzea besterik ez dauka. Batzuk Espainiako errepublika federala defendatzen dute, eta besteok, errepublikaren bidez Euskal Herriaren independentzia errazago lor daitekeela uste dugu, herrien autodeterminazio eskubidea ekarriko bailuke. Larunbateko manifestazioan, adibidez, eskubide hau manifestuan bertan agertzen da.

**Biltzen zaretenean, zer egiten duzue?**

Lehen esan bezala, irekia eta oso plurala da. Biltzean, ekimenak antolatzeaz gain, pixka bat egunerokotasunaz hitz egiten dugu, bakoitzaren ikuspegiak agerian gelditzen direlarik. Hori aberasgarria da, elkartzeko gaituen horretan aurrera egiten ari baikara, desberdintasunetatik haratago.

**Zeintzuk dira zuen lan ildo nagusiak?**

Memoria historikoaren legearen harira hasi ginen. Orain, barkamena eskatu behar dela esaten ari dira, baina hobietan dauden 100.000 hildako baino gehiagori ez die inork eskatu; kontatu zaigun historia ere, itxuraldatutako historia izan da.

**II. Errepublikaren inguruan ere hainbat istorio kontatu dira.**

Askotan idealizatu egiten da, baina egia da, oso berritzailea izan zela, bai hezkuntza aldetik, eta zer esanik ez kulturari dagokionez; emakumeek ere, lehen aldiz botoa garai hartan eman zuten. Lehen esan bezala, ordea, ez da horrenbeste idealizatu behar, izan ere, altxamendua eman zenean, gobernu errepublikarrak langileei armak emateko eragozpenak jarri zituen.

**Zergatik?**

Agian, eskuindarrei baina beldur gehiago zietelako langileei. Hala eta guztiz ere, oso garrantzitsua izan zela ukaezina da.

**Zuen antzeko taldeekin harremanik ba al duzue?**

Irungoekin harremana badugu, eta larunbateko manifestazioan, elkarte gehiagorekin jarriko gara kontaktuan, mobilizazioan horretarako aukera egongo baita.

**Zer eramango duzu Donostiako manifestaziora?**

Ikurrina eta errerepublikaren bandera, noski.

## Anoetan, atez ateko bilketa sistemaren inposaketa salatu dute

Tolosaldea Txukun plataformak eman du hitzaldia; «zikinagoa, deserosoagoa eta garestiagoa» dela diote

Erredakzioa Anoeta

Tolosaldea Txukun plataformen koordinadorearen bozeramaile den Patxi Amantegik hitzaldia eman du Anoetan. «Udalak bizilagunei, zikinagoa, deserosoagoa eta garestiagoa den atezateko bilketa sistema erabiltzera behartuko dieten inposaketa» salatu zuen.

«Ehun bat herritar elkartu zirela adierazi dute, eta gaur egun edukiontzien bidez egiten den gaikako bilketaren alde agertu zen hizlaria. Hondakin organikoak biltzeko bosgarren edukiontzia hedatzea eskatu zuen «askoz erosoago eta garbiago» delako. Arlo honetan, mankomunitateak azken edukiontzia hau zabaltzearen aurka duen jarrera salatu zuen, eta horrela «gutxi birziklatzen dela argudiatu eta zintzilikarioak inposatu» nahi dituztela.

Atez atekoaren aurka Anoetako 455 bizilagunek, beraien sinaduren bidez, izandako jarrerara eta konpromisoa eskertu zuen. Aldi berean, Bilduko udal gobernu taldeari «burbuila ideologikotik irten, begiak eta belarriak zabaltu eta bizilagunen eskaerei erantzun eta hondakin bilketaren inguruko galdeketa egitea» eskatu zien.

## → Laburrak

### Kiroldegiaren gaur egungo egoeraz bilerak izango dira

**ANOETA** ◉ Kiroldegiaren inguruko gaur egungo egoera azaldu nahi du Anoetako Udalak.

Horretarako bilerak egingo ditu, eta bihar eta etzi izango dira, 19:00etan, udaletxeko batzar aretoan.

### Herriko festak antolatzeko bilera, gaur, 19:00etan

**ANOETA** ◉ Anoetako Udala dagoeneko herriko festak antolatzen ari da. Herritarren gustukoak izan daitezten, eragile eta herritar gutzietan parte hartzeko deia egiten diete. Batzarra, gaur, 19:00etan izango da udaletxean.

Astebururo euren eplegua defendatzen ari dira Huyck Wangner enpresako langileak; beste irudi batzuk ere utzi ditu asteburuak, tartean negu giroa berriro itzuli dela.

# 74 familiaren borroka etengabea

**Imanol Garcia Landa**

Zuzurkilen dagoen Huyck Wangner enpresako langileek beste behin egin dute elkarretaratasen Tolosako Trianguloa plazan. 74 familia arriskuan daudeko ohartzarri dute, eta enpresak lan egitea ixki nahi izatea erabaki estrategikoa dela eta ez ekonomikoa. Datoren ostirakoa dute langileek enpresarekin hirugarren bilera, enpresak bigarren espedientea aurkeztu ondoren. Aurmetik, ostegunaren langileek Gipuzkoako Batzar Nagusietan euren egoera azalduko dute.

Bestalde, Tolosaldeko Topik zentroan Tzotzongilo Taldearen erakusketak dago ikusgai, eta taldeko partaidea den Enkarni Genuaren eskutik bisita gidatuak egiteko aukera dago hileko lehen ostiral eta larunbatetan. Egunotan izan dira lehenengo aukerak, eta parte hartu dutenek Tzotzongilo taldearen 40 urteko errepasata ahal izan dituzte Genuaren azalpenak entzuz.

Horrez gain, Ariketa Fisikoaren Nazioarteko Eguna zela eta, larunbatetan doako pilates saioa eman zien Mikel Oteokak Asuncion klinikak Tolosan duen Belate meñkuntza zentroaren gimnasioan. Hamabost bat pertsona elkartu ziren bertan.

Negua oraindik ez dio lekua utzi nahi udaberriari, eta tenperatura jasotzeko bitartean, asteburuan elhursi ikusi ahal izan da mendia eta kaleetan.

Tolosako Urkizuko Alurtxiki

ano elkarrekin udaberriko buztan dagoeneko. Hala, neguko ekitaldiak emakumeen eguna eta giroaren eguna ospatuz amaitu dituzte. Emakumeek Iparraldean egin zuten txangoa eta «orratzen bueltatu ziren etxera autobusa lozerez beteta zutelarik». Giroek lestei sagardotegiari ari hakin ospatu zuten beraien eguna. Udaberriko ekitaldiekin hasi dira, eta orain gutxi haur nahiz helduak elkartzen bildu ziren eskulan saio batean. «Benetan gauza oso politak satera ziren eta denok gustura izan ginen etxerera», azaldu dute Alurtxiki elkartetik. Ekitaldiekin jarraituz, hilaren 20an, 15:30ean, ikusleak Errekondo landareetan adituaren bisita egingo dute elkartean.



**Tolosa** | Zuzurkilen dagoen Huyck Wangner enpresako langileek elkarretaratasen egin zuten Tolosako Trianguloa plazan. [...](#)



**Tolosa** | Topik-en hasi dira Enkarni Genuaren Tzotzongilo Taldearen erakusketaren bisita gidatuak. [...](#)



**Tolosa** | Belate meñkuntza zentroan Ariketa Fisikoaren Nazioarteko Egunean egindako pilates saioaren une bat. [...](#)



**Eguraldia** | Asteburuan berriro itzuli da negu giroa. Irudian, Uztuz mendia elurtuta. [...](#)



**Urkizu** | Alurtxiki elkartean haurrek eta helduek eskulan talerra egin dute (goian). Neguko ekitaldiak paraldiera bidala eginen emakumezkoak (erdian) eta sagardotegi joinez gizonzkoak, bukatu dituzte. [...](#)

## Edari miragarria



**Bioantzasunetik**  
**Jon Ander Galarraga**  
Biologia

A maitu dira oporrak, nire aburumik hasi diren enpresakurle fidelek. Berritoren gure egunerokotian hasi behar, baina hementxe dago bi aste-rokurrak xume hasi aste egun bat alaitzeko eta noski, beti bezala, zerbaiz irakasteko?

Asteburu oro bezala, taberna zirkulu batosen guregandik berriarena inpirazio bila nabilen, edari batzuek idaztea otu zitzaizkidan. Baina jada idazteko dit, guregandoz, sagardoaz eta ardoaz. Euskal umbertoko edari garrantzitsuenak igaro dira zutabe xume horietatik. Baina bada edari berezi bat garrantzitsua oso gutxi ematen duguena eta giza kiaren %99,99ak beren bizitzan zehar edan dutea.

Gauro gure ekokulturaren zutabe, artikulu edo dena delako ertzi honetan, esanek berriak aurrizko gara. Animalien historia zozagarran zehar, kumeak zain-tza asmatzekin egokian izan zen. Haskira hotzen beren kasa bitziko gai diren milaka kume tuki egiten ziren, jaiotzean, gurusoak berriazteko alantzen ziren. Zeharrik animalia taldeak, ordea, kume gutxiago egitea otu zitzaizen eta kume hauek beren kasa utzi ordez, zain-tza erabaki zuten.

Kume bat zain-tzearan lehen pausoa, haldi berro eta goxo bat egitea da. Behin hanturatu ostean, kumea horretara dago elkarri. Kumea elkarrekin modu bakarra berentzat eliztuzte da, adibidez hegaztiak egiten duten bezala. Baina hor kanporatu egin zirenean, gurusoak dituzte, orduan zergatik ez kumeak beren kasa jaiotzean? Eta hementxe sortu zen esnea.

Esnearen asmatzearen erkin, gurusoaren hanturaren gertatzen zen eta eguna, kume txoko esneaz elikatzen ematen zuten bere habian, gainera, kume txoko elikagai ko-

puru finko bat edukitzean du eguneko zehar. Gurusoak esnea edo bestelako faktoreetatik salbu.

Esneak izan behar duen ezazu-berri garrantzitsua elikagai kokoa izatea da. Zehar eta elikagai gehiago edukirik, kumea azkarago hazi daitake. Ez da harrizkoa, beraz, esnea kume-tzarentzat dagoen janaririk egokiena izatea. Gaur egungo animalia-berria, esnea ugurtzeko saila sortzen dugu, beko... ugurtzen emek. Ugurtze berritoren gaituen eszagarririk bat da, haskerkin hantura berria, haskerkin esnea edan dute, sagardorek ere bai, satorrekeren bai, baita katagorriek ere!

Ez penasa ugurtu-berriarekin ez dutez elkarrekin elkarrekin. Gainera, esnearen asmatzean beste animalia taldeek ere kopiatu egin dute: hegaztiak. Iruko dezagun uso (*Columba livia*) bat. Usoa hegatzia da, baina kumeen lehen hiru egunak, ezta hiru sorkan daren ostean, antzeko edari hantekin elikatzen dituzte. Ostean usotxo txikia, gurusoek ekarritako janaria jaten hasi da.

Historikoki selebrez, pingino enperadorearekin (*Aptenodytes forsteri*) gertatzen da. Beste Antartikoko pingino espezie baten berri edo udari itzardoren diote kume txokoak izateko, baina pingino enperadorearen berri baina pingino delakoa: elkarrekin, kumeak Antartikoko negu hotzean izaten dituzte, 40 gradu zehar... «Hik dazkek hik potroko!». Pingino espezie baten, arrazita bakarra izaten du eta arrak zain-tzen du, esne ezizara joaten den bitartean. Sarritan esne eziz bere elikazkiri hant-tzen. Arrak ezin du bere kume-tzoko bakarrak utzi, hotzak hillo baitzuten segituan. Beraz, emek demora gehiegi daramaten etorri gabe, pingino enperadore arrak ezta hiru esneaz sortzen du. Ez da behin edo behin emek bezalako, baina kimikoki baditu antzeko eszagarririk. Ziru zaudete futbola hizlaturik baino in-terresgarriagoa delak?

Interes handia dut zuen irizirik jakiteko. *Maila* bidez edo zuzenean esnez, zuen irizirik kritikarik jasotzea oso garrantzitsua da. Beraz, idatzi [bioantzasunetik@hotmail.com](mailto:bioantzasunetik@hotmail.com) helbidera.

**Sartu gure webgunean**  
tolosaldea.hitza.info

**hitza info**

Jarraitu albisteak  
Twitter bidez  
@hitza\_tolosalde

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza orrialdeari eman "atsegin dut"

**Harpide egiteak saria du**  
Egin HIT Aren harpidedun apirilaren letrik maiatzaren 3 ira arte, eta jaso

eta  
Harpidedun guztien artean

**Areta Etxea nekazal turismoan bi pertsonentzako asteburu baterako egonaldia**  
ZOKAZATUKO DUGU

**Basoa banaketak**  
OPARI eskainitako 3 ardo botila

**Harremanetarako:**  
902 82 02 01  
harpidetza@hitza.info

**Kirolak****↓ Kirol emaitzak****PILOTA****LEHEN MAILAKO  
BINAKAKO PILOTA  
TXAPELKETA****Finalerdietako ligaxka**

Bengoetxea VI-Beroiz	13
Irujo-Zabaleta	22
Olaizola II-Zabala	14
Berasaluze-Albisu	22

**Sailkapena**

	<b>J</b>	<b>I</b>
1. Irujo-Zabaleta	2	2
2. Bengoetxea VI-Beroiz	2	1
3. Berasaluze-Albisu	2	1
4. Olaizola II-Zabala	2	0

**AIZKORA****2013 EUSKO LABEL  
BANAKAKO AIZKORA  
TXAPELKETA,  
URREZKO MAILA****Joan den asteburuko  
kanporaketak****Bilbon**

**Jokin Alkizatek** eta Eneko Otañok lortu zuten txapelketan aurrea egitea.

**Zerainen**

Julen Kañamaresek eta Iban Resanok lortu dute aurrea egitea.

**Hurrengo kanporaketak  
Hilaren 13an, Asteasun,  
23 urte azpikoak**

Eneko Otaño  
Kañamare III  
Kañamare IV  
**Jokin Alkizate**  
**Eneko Saralegi**

Vicente Irazabal  
Larrea III  
Kortxero  
Lopez  
Rodriguez II  
Naredo

**Hilaren 14an, Leitzan  
Maila nagusia**

Larrañaga  
Etxeberria  
Larretxea  
Erasun  
Mindegia  
Kañamare III  
Resano  
Urteaga  
**Jexumari Mujika**  
**Jon Irazu**  
**Ruben Saralegi**  
**Alkizate II**

**SASKIBALOA****LEHEN MAILA  
24. jardunaldia**

Fundacion 5+11	50
<b>Bide bide</b>	<b>80</b>

**Sailkapena**

1. Asesoria SAF	18-6
2. Askartza	17-7
3. Atletico San Sebastian	16-8
<b>5. Bide bide Donostia</b>	<b>15-9</b>

**FUTBOLA ETA ARETO FUTBOLA**

Aste Santuetako geldialdiaren ondoren, asteburuan hasiko dira lehiaren eskualdeko taldeak.

# «Finalerako txartela irabaztera» aterako direla aitortu du Bengoetxea

Irujo eta Zabaletaren aurka galdu ostean, hil ala biziko lehia dute asteburuan Olaizola II. eta Zabalaren aurka

**Mikel Iraola** Tolosa

Irujo eta Zabaletaren aurka 13-22 galdu ondoren, azken jardunaldi-arte itxaron beharko dute Oinatz Bengoetxea eta Mikel Beroiz finalerako txartela eskuratu ahal izateko. Aimar Olaizola eta Ibai Zabalaren aurka arituko dira finalurrekoetako azken partida horretan, eta irabaziz gero, aukera asko izango dituzte, txapela irabazteko finalean izateko.

Pasa den igandean, Bizkaia pilotalekuan egindako jokoarekin ez zen batere gustura geratu aurrelari leitzarri. Pilotakada asko-ko tanto gogorrekin hasi zen partida, baina segituan 6-19ko aurka-ko emaitzarekin jarri ziren.

«Nahiko partida txarra jokatu nuen. Sakez pare bat falta egin eta beste hainbat pilota galdu nituen. Horrek distraitu egin ninduen, eta une txarrak pasa nituen kantxan. Bagenekien aurkari hauen aurka dena bikain egin beharko genukeela irabazteko aukera izateko, baina ezin izan genuen», adierazi du Bengoetxea.

Amairan, Zabaletak izan zuen behearakada fisikoa aprobetxatuz, emaitza zertxobait txukuntzea lortu zuten. Azkenean, 13-22ko emaitzarekin amaitu zen.

**Asteburuan, «irabaztera»**

Galdu arren, oraindik sailkapeneko bigarren postuan daude, eta



Igandean gustura aritu ez bazen ere, baikor ageri da Bengoetxea finalean sartzeko aukerei begira. HITZA

finala jokatzeko euren eskuetan dago. Datorren asteburuan, Aimar Olaizola eta Ibai Zabalaren aurka arituko dira, eta partida irabaziz gero, finalean egoteko aukera asko izango lituzkete. Beste finalurrekoan zer gertatzen den ere gertutik jarraituko duten arren, garrantzia kendu nahi izan dio horri Bengoetxea: «Guk geure lana egin behar dugu, eta irabaztera aterako gara. Azken aukera bezala ikusten dugu».

Aurkariez, ordea, ez da fidatzen Bengoetxea: «Agian finalurrekoetan ez dute beren maila hobereana eman, baina Ibai atzelari oso ona da, eta Aimar zer esanik ez. Partida zaila izango da eta lan asko egin beharko dugu».

**↓ Eskuz Binakako Txapelketako finala****SAILKATZEKO AUKERAK**

■ **Irujo-Zabaleta.** 1. Hamar tanto edo gehiago egitea Berasaluze eta Albisuren aurka; 2. Olaizola eta Zabalak Bengoetxea eta Beroiz mendean hartzea.  
■ **Berasaluze II-Albisu.** 1. Irujo eta Zabaletari irabazi, eta hauek 20 tanto edo gutxiagorekin uztea; 2. Irujo eta Zabaletari 22-21 irabazi eta, Bengoetxea eta Beroiz 13 puntu edo gutxiago lortzea Olaizola eta Zabalaren aurkako partidari; 3. Olaizola eta Zabalak Bengoetxea eta Beroiz garaitzea, 22-12 eta

22-19 bitarteko emaitza bat lortuz.

■ **Bengoetxea VI-Beroiz.** 1. Olaizola eta Zabalaren aurka irabazi eta Berasaluze eta Albisuk, Irujo eta Zabaletaren aurka galtzea; 2. Olaizola eta Zabala 13 tanto edo gutxiagoan uztea, eta Berasaluze eta Albisuk 22-21 irabaztea; 3. Olaizola eta Zabalari 21 tanto eginez gero, Berasaluze eta Albisuk, galtzea.  
■ **Olaizola II-Zabala.** 1. Bengoetxea eta Beroiz 10 tanto edo gutxiagoan utzi, eta beste partidari, Irujo eta Zabaletak, Berasaluze eta Albisuri irabaztea.

**Bidegoian**

## HOTZA BAINO, PASIO GEHIAGO

Eguraldi txarrak eta tenperatura hotzek ezin izan zuten garaitu Euskal Herriko Itzulia gertutik jarraitzea hurbildu ziren zaleen pasioa. Egun gogorra izan zen txirindularientzat, elurra ere egin baitzuten. Baina zaletu euskaldunek errepide bazterretan iraun zuten, eta txirindulari askok hauengana esker oneko hitzak besterik ez zituzten utzi beren Twitter kontuetan. Irudian, Bidegoiandik Beizamarako bidegurutzean, lasterketa buruan pasa ziren Jesus Herrada (Movistar) eta Egor Silin (Astana). Itzulia, Movistarreko Nairo Quintana kolonbiarrak irabazi zuen. HITZA

# Emaitza onak lortu ditu Danok Danena taldeak Euskal Herriko Txapelketan

Klubeko zazpi mutil eta bi neska sailkatu dira maiatzean Madrilen jokatu den Espainiako Txapelketarako

**Mikel Iraola** Amasa-Villabona

Aiztondo Euskal Herriko halterofilia pultsularien sorleku kuttunenetakoa bat da. Urteak daramatza Danok Danena taldeak kirol hau gustuko duten gazteak kirolari moduan hezten, eta emaitza onak lortzen. Horren erakusle izan dira, larunbatean Amasa-Villabonako Olaederra kiroldegian jokatu den Euskal Herriko Txapelketan lortutakoak.

Nesken mailan, banakako modalitatean, txapeldun izan ziren Susana Davila billabonatarra, 58 kilo bitartekoen artean, eta Goretti Amonarriz larrauldarra, 63 kilotik beherakoetan. Puntuazio orokorrean bigarren eta hirugarren izan ziren, hurrenez hurren.

Gizonetako mailan, denetarik izan zen. Lyan Edell Rodriguez billabonatarra txapeldunorde izan zen 56 kilo bitartekoen artean. 69 kiloko mailan, berriz, bi zizurkildar izan ziren lehen bi postuetan. Igor Sasiain izan zen garaile, eta Asier Gallego bigarren. 77 kilotik beherakoetan, Jon Sasiainek bigarren postuan amaitu zuen. 85 kiloko artean, beste bi billabonatar podiumeko lehen bi postuetan, Jon Ander Iriarte eta Francisco Gonzalez. Teddy Martinez zizurkildarra ere irabazle izan zen 94 kiloko mailan.

## Taldeka ere, nagusi

Taldeka, Gipuzkoako selekzioa izan zen hoberena. Danok Danena taldeko gazteek eta Zarauzko Ion Mendizabalek osatzen zuten taldeak 207 puntu eskuratu zituen. Bigarren Bizkaia izan zen



Igor Sasiain eta Goretti Amonarriz garaile izan ziren beren mailetan. I. GARCIA

189 punturekin. Brontzea nafarrentzat izan zen, 186 punturekin, eta laugarren postuan amaitu zuen Arabak 123 punturekin.

Federaziokako sailkapena ere gipuzkoarrek irabazi zuten, 1.572 puntu lortu eta gero. Ia 100 puntuko aldearekin garaitu zituzten

1.479 punturekin amaitu zuten bizkaitarrak. Nafarroa, 1.343 punturekin, hirugarren izan zen, eta 1.295 lortu zituen Arabak.

Emaitza horiekin oso gustura agertu da Batis Kortajarena, Danok Danena taldeko prestatzailea. Bere ustez, «lan bikaina egin eta uste baino hobeto» ibili dira berak entrenatzen dituen pultsulariak.

## Madrilera bidean

Euskal Herriko Txapelketan lortutako emaitza onak, Espainiako Txapelketan izateko ateak ireki dizkiete eskualdeko bederatzita pultsulariei.

Datorren maiatzaren 27an, beraz, zazpi mutil eta bi neska izango dira Madrilen: Igor Sasiain, Jon Sasiain, Teddy Martinez, Jon Ander Iriarte, Francisco Gonzalez, Asier Gallego, Susana Davila eta Goretti Amonarriz. Hauekin batera ere, euskaldunen ordezkari izateko osatuz, Mikel Alvarez bizkaitarra izango da.

Kortajarena baikor azaldu da txapelketa horietan emaitza txukunak lortzeko. «Nesken mailan, beren pisuetan garaile izateko gai ikusten ditut Goretti eta Susana. Kontutan izan behar da hamabost urteko neskatxak direla». Irabazten ez badute ere, esperientzia ezin hobea izango dela adierazi du prestatzaile billabonatarra, izan ere, beren adineko txapelketak geroago jokatu dira.

Mutilen kasuan, Igor eta Jon Sasiain, Teddy Martinez eta Mikel Alvarez bizkaitarra domina lortzeko lehian ikusten ditu: «Emaitza onak lortzeko gai dira, eta lehen hiru postuetan ibili daitezkeela uste dut. Gaintzekoek ere lan txukuna egin dezakete, eta ikusi beharko da aurkariak ere zer nolako maila erakusten duten. Hala ere, guztiak finalisten artean izango direla iruditzen zait». Bitartean, orain arte moduan jarraitu beharko dute lanean.

## Pellejero, Agirre eta Saralegi, kanpora, eta Alkizalete II.a, aurrera

Datorren igandean, Leitzan jokatu da hurrengo kanporaketa, eta bi eskualdeetako lau aizkolarari izango dira

**M. Iraola**

2013ko Eusko Label Banakako Aizkora Txapelketaren barnean, asteburu honetan parte hartzen zuten Tolosaldeko eta Leitzaldeko lau aizkolaritatik Jokin Alkizalete bakarrik egin du aurrera. Zerainen eta Bilboko Santutxu auzoan jokatu den kanporaketan, Asier Pellejero, Eneko Saralegi eta Iñaki Agirre kanporatu zituzten.

Larunbatean Zerainen jokatu den kanporaketan, Dorronsoro, Zaldúa, Urteaga, Agirre, Esnaola, Beltza, Goñi, Resano, Kañameres III.a, Pellejero, Vazquez eta Jauregi aritu ziren nor baino nor. Lehen fasean 45 ontzako enborra moztu behar izan zuten. Bigarrenean, kana-erdiko bana, eta azken fasean, berriz, 60 ontzako bana. Kañameres III.ak eta Resanok egin zuten aurrera.

Igandean, Bilbon jokatu den kanporaketan, berriz, Mugertza III.a, Eneko Otaño, Alkizalete II.a eta Eneko Saralegi izan ziren azken faseko sailkatuak, eta asteasuarrak gain, Otaño sailkatu zen. Saralegik, ordea, 23 urtez azpiko txapelketan jarraituko du.

## Igandean, Leitzan

Hurrengo kanporaketa igandean jokatu da Leitzan, 12:00etatik aurrera. Hamabi aizkolarien artean, bi eskualdeetako lau ordezkari izango dira bertan: Mujika, Irazu, Saralegi, eta Alkizalete. Larunbatean, berriz, Asteasun 23 urtetik beherako txanda izango da.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95



16°  
10°

GOIZA	LANOTUTA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	18°
HOTZENA	13°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitateak:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria  
Hedabideak  
SM-ko kideak:

BERTAKO  
HEDABIDEAK



Galtzaundi  
euskara  
taldea



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

Hitza-k  
Bai  
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altxo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Egunkoia: Morant, R. Zabalarreta lorategiak, 1. Telefonoa: 943 67 38 49. Gauekoa: Olarreaga, M. Martin J. Iraola etorbidea, 10. Telefonoa: 943 67 24 38.
- **Beteku.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San martin, 5. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## Agurrak

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

agurrak

## Ibarra



## ALTXORRA BILATU NAHIAN

Ibarrako Txiribitu aisialdi taldeak 20 urte bete ditu ibartar gaztekoen aisia betetzen. Urteurrena ospatzeko Txiribitu Astea antolatuta dute, eta atzo arratsaldean eman zioten hasiera Altxoraren bila jokoarekin. Haur ugari elkartu zen ibarrako plazan, eta taldeetan banatuta altxorra bilatu nahian ibili ziren herrian barrena. Larunbata bertan antolatuta dago ekitaldiak eta, gaur, esaterako, 19:00etan, Maider Sierra psikologo eta gizarte hezitzailearen hitzaldia izango da kultur etxean. Larunbata izango dute egun handia, eta bazkarirako txartelak salgai jarri dituzte Zubiaurre, Txumitxa, Alai eta Danon Txokoa tabernetan. Haurrek 12 euro eta helduek 16 ordaindu beharko dute. HITZA

## Agenda

### GAUR

#### DEIALDIAK

- **Amezketak.** Amezketako Mendian Astearren barruan, Luis Sagatume herritarren eskutik *Atlas 2013* buruzko hitzaldia izango da, 20:00etan, kultur etxean.
- **Anoeta.** Herriko festak antolatzeko bilera izango da, gaur, 19:00etan, udaletxean. Herritar guztiei zuzendua izango da.
- **Amasa-Villabona / Zizurkil.** Arropa birtziklatua egiten ikasteko ikastaroa antolatuta dute bi udalek. Izena hilaren 30a bitartean eman daiteke, eta ikastaroa maiatzaren 6tik 24ra bitartean izango da 17:00etatik 20:00etara.

- **Aiztondo.** VI. Aiztondo Gutun Lehiaketa abian da, eta lanak aurkezteko epea hilaren 26a bitartean dago zabalik. Jaiotako etxea txikitzaera doaz izango da gaia.
- **Ibarra.** Txiribitu Aisialdi taldeak antolatuta, Maider Sierra psikologo eta gizarte hezitzailearen eskutik hitzaldia izango da, gurasoentzako, kultur etxean.
- **Tolosa.** II. Errepublikaren 82. urteurrenaren barruan, *Gerra eta errepresioa Tolosan* hitzaldia izango da, 19:30ean, Arribu Jauregian. Iñaki Egaña eta Karlos Almorza izango dira hizlariak.
- **Tolosa.** Tolosako Udalak, sanjoanek iragarriko dituen kartela

egiteko lehiaketa antolatuta du. Maiatzaren 17a da lanak aurkezteko azken eguna. Kartelean, *Sanjoanak 2013 / Tolosa, ekainak 21-25* agertu beharko da. Lanak kultur etxean aurkeztu beharko dira.

- **Tolosa.** Kilometroak 2013ko ikasle Batzordeak Ahora! bideo lehiaketa antolatuta du. Gehienez bost minutuko edozein bideo egin daiteke Ahora! leloa gai

gisa hartuta. Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 10a da.

- **Tolosa.** Tourette sindromea dutenen aldeko elkartasun bazkaria izango da, larunbatean, hilak 13, Usabal kiroledegian. Izena emateko 667 78 18 66 (Eli) telefono zenbakira deitu behar da. Helduek 18 euro eta haurrek 10 euro ordaindu beharko dute. Ateratako dirua elkartearantz izango da.

## Egin HITZAren HARPIDEDUN

ORDUÑA  
Aisia hotelean,  
bi pertsonarentzako  
asteburu baterako  
egonaldiaren IRABAZLEA:

ONINTZA  
GARAIOETXEA  
ZABALA  
(Ibarra)

Hitza jarriko da saridunarekin harremanetan.

hitza info

**Mauka** GAIURKO ESKAINTZA

Ospatu **BERRI**aren 10. urteurrena Aralarren magalean

LAZKAG-ETXE  
NEKAZAL TURISMOA-LAETZETEA  
Astearte-ostirala 10:30  
ZALDIRIA 20141 - GIPUZKOA  
Tel. 943-68 30 44 / 615 745 524  
info@auka.com  
www.aula.com

Presioa **29€**

www.mauka.eu **berria**

